

## ARNASAREN KULUNKA

Herta Müller

Itzultzailea: Errotari



### Bide-zorroa prestatzen

Soinean daramat daukadan guztia.

Edo, nirekin daramat nirea den guztia.

Neukan guztia eraman nuen. Baina ez ziren nire gauzak. Beste zerbaitetarako edo beste norbaitenak ziren. Gramofono-kutxa bat zen zerri-larruzko bide-zorroa. Aitarena zen soingainekoa. Aitonarena, belusezko iduna zuen beroki apaina. Osaba Edwinenak, galtza bonbatxoak. Auzoko Carp jaunarenak, larruzko zangozorroak. Izeko Finirenak, artilezko eskularru berdeak. Zetazko xal gorri ardokara eta garbiketa-poltsa baino ez ziren nireak, Gabonetako opariak.

Gerran geunden oraindik 1945eko urtarrilean. Izututa, negu gorrian errusiarrengana nor daki nora joan behar nuelako, zerbait eman nahi zidan mundu guztiak, agian baliogarri izango zitzaidan zerbait, irtenbiderik ez nuen horretan. Irtenbide guzti-guztiak itxita baitzeuden. Errusiarren zerrendan nengoelako eta horrek bueltarik ez zuelako eman zidan mundu guztiak zerbait, pentsatzen zutena euren golgorako gordez. Eta gauza guztiak hartu nituen, eta pentsatu nuen, hamazazpi urte izaki, une egokian iritsi zela abiatu behar hori. Hobe zioa errusiarren zerrenda izan ez balitz, baina bide hori makurregia suertatzen ez bada, onuragarri izango zait azkenean. Gure hiri txikiko kaiolaren babes itogarritik ihes egin nahi nuen, begiak baitituzte hor harri-koskor guztiek. Ez nuen beldurrik, isilean gordetzen nuen ezinegona baizik. Eta bihotz-zimikoa sentitzen nuen, senitartekoak etsipenean murgildu zituen zerrenda hark egoera onargarria sortzen zuelako nire begietan. Beldur ziren haiek zerbait jazoko ote zitzaidan atzerrian. Inork ezagutzen ez ninduen toki batera alde egin nahi nuen nik.

Ordurako zerbait jazo baitzitzaidan. Debeekatuta dagoen zerbait. Estrainioa, zikina, lotsagabea zen, eta ederra. Haltzen parkean gertatu zen, hondo-hondoan, belar motzeko muinoez haraindi. Parkearen erdigunera joan nintzen itzulbidean, jaiegunetan musika-bandek erabili ohi

du ten kiosko biribilera. Han geratu nintzen eserita une batez. Esku artetsuek landutako egurrezko egitura zeharkatzen zuen eguzkiak. Kiribil zuri atzapardunek elkar lotzen zituzten zirkulu, karratu eta trapezio hutsen izua ikus nezakeen. Nire nahasmenduaren irudia zen hori, eta amaren aurpegiak adierazten zuen espantuaren irudia. Kiosko hartan agindu nion neure buruari inoiz ez nintzela itzuliko parke horretara.

Zenbat eta gogorrago saiatu neure buruari eusten, orduan eta azkarrago itzultzen nintzen, ordea, bi egun barru. Hitzordura, horrela deitzen zitzaion parkekoari.

Bigarren hitzordua izan nuen lehengo gizon berberarekin. ENARA izena zuen. Bigarren gizona beste bat izan zen, IZEI izena zuen. Hirugarrenak BELARRI izena zuen. Ondoren HARI etorri zen. Gero, URRETXORI eta KAPELA. Jarraian, UNTXI, KATU, KAIO. Gero, PERLA. Guk beste inork ez zekien zer izen zuen nork. Abere-bidea zen parkekoa, joan-etorri hartara lerratu nintzen. Uda zen, eta azal zuria zuten urkiek, hostaila sarri-sarriko hesi berdea hazten zen jasmin eta intsusa zuhaixken artean.

Maitasunak bere sasoiak ditu. Parkearen amaiera ekarri zuen udazkenak. Biluztu egin ziren zuhaitzak. Hitzorduak gurekin etorri ziren Neptuno bainu-etxera. Obalo formako zisne-ikurra zegoen eskegita burdinazko atetzarraren ondoan. Astero elkartzen nintzen adina bikoizten zidan harekin. Errumaniarra zen. Ezkondua. Ez dut haren izenik aipatuko, ezta nirea ere. Nor bere aldetik etortzen ginen, burdina-leihoaren atzean sartuta zegoen kutxazainak, harrizko zoru distiratsuak, gelaren erdiko zutarri biribilak, igebelar irudiz apaindutako horma-lauzek, egur landuko eskailerak suma ez zezaten hitzordua genuela. Igerilekura joaten ginen beste guztiekin batera igeri egitera. Sauna-geletan elkartzen ginen gero azkenean.

Kartzela-zigorra ekar zezakeen hitzordu bakoitzak garai hartan, esparrura abiatu baino lehentxeago, eta berdin esparrutik itzuli nintzenetik 1968an herrialdea utzi nuen arte. Bost urte gutxienez atzeman izan banindute. Atzeman zituzten batzuk. Ziegara eramaten zituzten zuzenean parketik edo bainu-etxetik itaunketa ankerra jasan ondoren. Eta hortik ubide ondoko zigor-etxera. Inor ez zen itzultzen ubidetik, gaur dakidanez. Gorpu ibiltaria baino ez zen itzultzen zena. Zahartuta eta hondatuta, maitasunerako guztiz ezinduta.

Eta esparru garaian, han atzeman izan banindute, adio orduan.

Esparruko bost urteak pasa ostean kaleko aztoramenean zehar ibiltzen nintzen egunero noraezean, eta hitz egokienak bilatzen nituen buruan atxilotzen nindutenerako: SALTZAREN

ERDIAN ATZEMAN HAUGU, hamaika aitzakia eta desenkusa nituen paratuta zigor-epai horri aurre egiteko. Fardel isila daramat. Hain sakon eta hain luze bildu nuen neure burua isiltasunaren fardelean, ezingo baitut inoiz hitzen bidez askatu. Fardela bestela lotzea besterik ez dut lortzen, hitz egiten dudanean.

Azken hitzordu-udan ingurabide handian dagoen Hirutasun Santuaren elizan sartu nintzen ausaz, haltzen parketik etxerako bidea luzatzearen. Zoria halabehar bihurtu zen. Etorkizuna ikusi nuen. Albo-aldarearen ondoan zegoen santua zutik eustarri baten gainean soingaineko nabarra jantzita, eta arkumea zeraman lepogainean. Isiltasuna da lepogaineko arkume hori. Hobe da gauza batzuk ahotan ez hartzea. Baina badakit zer diodan, diodanean lepogaineko isiltasuna ez dela ahoko isiltasuna.

Esparru garaia baino lehen, iraun zuen artean eta ondoren, izututa bizi izan naiz 25 urtez, estatuaren beldur eta familiaren beldur. Eroriko bikoitzaren beldur, estatuak gaizkiletzat jota espetxeratuko nauen eta familiak ondragabetzat jota egotziko nauen beldur. Kaleko zurrunbiloaren erdian neure burua behatzen nuen dendetako erakustokietan, tranbietako eta etxeetako leihoetan, iturrietan eta putzuetan, sinesgogor, azken batean gardena ez ote nintzen.

Marrazketa irakaslea zen aita. Eta ni, Neptuno bainu-etxea gogoan, uzkurto egiten nintzen ostikada bat eman balidate bezala, AKUARELA hitza erabiltzen zuenean. Ondotxo zekien hitz horrek zein urrun iritsi nintzen ordurako. Behin amak bazkalorduan esan zuen: ez sastatu patata sardexkarekin, txikituko duzu eta, hartu koilara, haragia jateko erabiltzen da sardexka. Zizt egiten zidaten lokiek. Zergatik aipatu du haragia, patata eta sardexka baldin baziren hizpide. Zer haragi da hori. Haragia irauli zidaten hitzorduek. Neure buruaren lapur nintzen, hitzok oharkabea ebaki nituen eta atzitu ninduten.

Amak eta bereziki aitak, gure hiri txikiko aleman guztiek bezala, txirikorda horailen eta galtzerdi zurien edertasunean sinesten zuten. Hitlerren lauki-formako bibote beltzean eta arraza arioko kide ginen Transilvaniako saxoiengan. Soinari bakarrik erreparatuz gero, nazkagarrikeria ezin itsusiagoa zen nire sekretua. Errumaniar batekin nahasi nintzenez, arraza-laidoa itsasten zitzaion gainera kontuari.

Ospa egin nahi nuen senitartekoengandik, esparrura bazen ere. Amak ematen zidan pena, ez baitzekien zein gutxi ezagutzen ninduen. Maizago ekarriko bainau gogora nik hura baino, abiatzen naizenean.